

# 'Adjektiboen' eta 'adberbioen'<sup>1</sup> arteko muga zehatzik eza

IGONE ZABALA ETA JUAN CARLOS ODRIOZOLA

(UPV-EHU)

## Abstract

*It is a well known fact, that sometimes the divisory line between two categories of the grammar is difficult to establish. Adjectives and manner adverbs are some of those problematic categories. Basque adverbs and adjectives has been characterized by using a functional criterion: modifiers of nouns are all considered as adjectives and modifiers of verbs, adjectives and adverbs are all considered as adverbs.*

*In this paper we criticize the resulting clasification of grammatical categories, showing that a lot of words belonging to the postposition phrase category have being included into both categories (adjectives and adverbs). Moreover, some words that are taken up as modifiers of the verb, actually have not such a function, since they behaves as (subcategorized or secondary) predicates. Our claim is that the predicative function must also be taken into account. That leads us to claim that some words of Basque traditionally considered as adverbs display always a predicative behavior, which makes us consider them as adjectives.*

## Sarrera

Ezaguna da edozein hizkuntzaren gramatika aztertzerakoan azaltzen zaigun lehendabiziko arazoa hitzen kategoria finkatzea dela. Finkapen hori, gainera, ez da hasiera batean pentsa daitekeen bezain erraza. Izan ere, hitzen kategoria erabakitzeko orduan, hainbat motatako irizpideak hartu behar dira kontutan. Hitz baterako, irizpide horiei guztiei begiratu eta guztiak bat datozela ikusten bada, erraza izaten da erabakia, baina irizpide bakoitzak kategoria batez pentsatzera garamatzanean, erabakia ez da horren erraza izaten; azkenean, hitz horren kategoria, irizpide batzuei beste bino pisu handiagoa egotziz finkatu beharko da.

Esana dugunez, kategorien arteko mugak finkatzeko irizpide ugari dago. Alde batetik, morfologiari begiratu ohi zaio: hasteko, hitzaren barnean morfema bat baino gehiago bereiz daitekeen eta hitza bakuna, elkartua edo eratorria den finkatu behar da; bigarrenik, hitzak jenero, zenbaki eta pertsonari dagozkion morfemak hartzeko aukera duen eta ikusi behar da.

(1) Hemen 'adjektibo' eta 'adberbio' hitzak EGLU-I gramatikaren zentzuan erabili ditugu; hau da, izenondo eta izenlagunak alde batetik eta bestetik aditzondo eta aditzlagunak aipatzeko. Dena den, mugaren arazoak, izenondo eta aditzondoan kategorietan sartuko genituzkeen kasuan suertatzen dira ia beti.

Bestetik, sintaxi-banaketari begiratu behar zaio: hasteko, hitz hori bestelako hizirik gabe sintagmak eratzeko gai den ala ez jakin behar da; sintagmak eratzeko beste hitz batzuk behar baditu, hitz horiek zein kategoriatakoak diren eta elkarren arteko harremana nolakoa den finkatu behar da. Azkenik, hitz horrek eratzten dituen sintagmek sintaxian betetzen dituzten funtzioak ezagutu behar dira<sup>2</sup>.

Lan honetan, euskararen ohiko gramatiketan adjektiboen (izenlagun eta izenondo) eta adberbioen (aditzlagun eta aditzondo) sailetan sartu diren zenbait hitzi buruzko ohar batzuk egiteko asmoa dugu. Hasteko, kategoriatuak, edo haien baren bereizi diren azpikategoriak behintzat, homogeneoak ez direla agerian jartzen saiatuko gara. Bigarrenik, gaztelaniari buruzko gramatiketan ere behin baino gehiagotan plazaratu den arazo batez arituko gara, alegia moduzko adberbioen (aditzlagun eta aditzondo) eta izenondoaren arteko muga zehazteko zailtasunaz. Hortaz, zenbait hitzen kategoriatu erabakitzeko orduan euskarari buruzko gramatiketan kontutan hartu ez den sintaxi-jokaera bati, predikatuak eratzeko aukerari alegia, nolabaiteko pisa egotzi behar litzaiokeela defendatuko dugu.

Lehenengo atalean, gramatika-kategoria, sintaxi-funtzio eta egiturazko harreman direlako kontzeptuak zehazten ahalegingiduko gara. Bigarren eta hirugarrenean, euskararen 'adjektibo' eta 'adberbio' suprakategoriak finkatzeko hautatu den bidea berrikustatu dugu, kasu bakoitzean erabili diren irizpideak zein motatakoak izan diren agerian jarritz. Laugarrenean, modu-aditzondoaren sailean sartu diren zenbait hitzen morfologiari eta sintaxi-jokaerari begiratu diegu, egotzi zaien kategoriatu horren garbi ez dagoela eta predikatuak eratzeko ahalmen edo ezintasunari ere nolabaiteko garrantzia eman behar litzaiokeela agerian jarritz. Azkenik, lan osoan egindako gogoetatik zenbait ondorio aterako ditugu.

## 1. Gramatika-kategoria, gramatika-funtzioa eta egiturazko harremanak

Hizkuntza guztietarako lau gramatika-kategoria nagusi bereiz daitezke: aditza, izena, izenondoa eta preposizio edo posposizioa. Gramatika Sortzailearen ikuspegitik, kategoriatu horien arteko mugak  $[\pm N]$  eta  $[\pm V]$ <sup>3</sup> ezaugarrien bidez finka daitezke. Horrenbestez, eta euskara bezalako hizkuntza posposizional baterako, honelako kategoriatu izango genituzke: izena= $[+N, -V]$ , aditza= $[+V, -N]$ , izenondoa= $[+N, +V]$  eta azkenik, posposizioa= $[-N, +V]$ . Kategoriatu nagusi hauetaz gain, zenbait 'azpikategoria' aurki daitezke hizkuntza gehienetan: determinatzaileak, aditzondoak, kuantifikatzaileak, konplementatzaileak eta juntagailuak.

(2) Sintagmek beren gunearen kategoriatu bera izaten dute. Adibidez, aditz-sintagmaren gunea aditza dela esan dezakegu eta bai aditza eta bai ASa ere 'aditz' kategoriakoak direla esan daiteke. Hala ere, euskara hizkuntza posposizionala denez, batzuetan, sintagmen buruak hitzak izan gabe morfemak dira. Funtzioari dagokionez, predikatu, subjektu edo modifikatzailearena bezalako sintaxi-funtzioak betetzen dituztenak, sintagmak izan ohi dira eta ez hitzak edo morfemak.

(3) Bistan da ezaugarri horietarako erabili diren sinboloak ingelesarenak direla: N=noun eta V=verb. Euskararen berbetan oinarritzea eta  $[\pm I]=[\pm izen]$  eta  $[\pm A]=[\pm aditz]$  sinboloak erabiltzea bururatu zaigu hasiera batean, baina euskal terminologia erabiltzeak gaizkiulertuetarako aukera handiegia utz lezakeela iruditu zaigu: I sinboloa izena hitzaren hasierako letra ezezik, izenondo eta izenlagunarena ere bada eta A letra, aditza hitzaren hasierako letra ezezik, adjektibo, adberbio eta aditzlagunarena ere bada. Horrenbestez, lan honetan aztertu behar ditugun kategorietatik hitz egiteko, egokiago iritzi diegu ingelesaren sinbolo abstraktuak erabiltzeari.


Sintagmen guneak diren kategoria horiek, elkarren artean konbinatzen dira sintagma- eta perpaus-egitura konplexuak emanez. Sintaxian, kategoria desberdinetako sintagmek hainbat funtzio betetzen dituzte. Hortaz, predikatu eta subjektuez, modifikatzaile eta osagarriez mintzatzen gara. Gramatikaren unitatetzat hartzen ditugun perpausen guneak, aditz-predikatuak dira, horiek hiztegian argumentu-egitura baten bidez zehazturik daudelarik. Argumentu-egitura hau predikatuak adierazten duen gertaera, egoera edo ezaugarriaren semantikazko irudikapena da: gertaera, egoera edo ezaugarri horren partehartzaileak eta beren semantika-funtzioa (egile, jasale, gai, esperimentatzaile) zehazturik daude.

Sintaxian predikatuek beren argumentu-egitura islatzen dute, argumentuak subjektu, osagarri zuzen eta zeharkako osagarria bezalako funtzioak betetzen dituzten sintagma modura gauzatuz. Argumentu bakoitzak beteko duen sintaxi-funtzioan, eragin zuzena du argumentu horrek duen semantika-funtzioak. Izan ere, semantika-funtzioen artean mailakatze zehatza dagoela dirudi eta adibidez, egilerik egonez gero subjektuaren funtzioa ezinbestean egileak bete behar du. Predikatu-buru baten argumentu-egituran dauden osagai guztiak ezinbestean islatu behar dira sintaxian. Hala ere, predikatuek, beren argumentu-egituran zehazturik ez dauden eta beraz aukerakoak diren zenbait modifikatzaile ere onar ditzakete.

Perpausak eman ditzaketen predikatuak beti izaten dira aditzaren kategoriakoak (adizki-predikatuak), baina badira nolabaiteko argumentu-egitura duten baina perpausik ezin era dezaketen predikatuak ere, izenki-predikatuak alegia. Predikatu baten argumentu-egiturarik bakunena subjektua baizik ez duena da; areago, halakoa izaten da izenki-predikatu gehienek argumentu-egitura. Horrenbestez, hitz edo sintagma baten funtzioa predikatuarena den ala ez jakiteko, subjektu baten beharra duenentz jakin behar da.

Bestetik, sintaxian sintagmak egiturazko eredu zehatz batzuen arabera jartzen dira harremanetan<sup>4</sup>. Sintaxi-egituran, aukerakoak diren modifikatzaileak adjuntuak di-

(4) Gramatika Sortzailearen esparruan X'-Teoria deritzo eredu horri. Eredu honetan hiztegi-sarrerren islapena adarkaketa bikoitzari eta bi mailako adarkaketari jarraiki egiten da: X<sup>0</sup> mailako burua (sintagmaren gunea) 'osagarri' batekin elkartuz, X' mailako adabegi bat lortzen da eta X' mailako adabegi hori 'espezifikatzaile' batekin elkartuz, X'' (edo XS) mailako islapen nagusia (sintagma) lortzen da. Kontutan hartzekoa da 'osagarri' eta 'espezifikatzaile' kontzeptuak, harremanezkoak direla eta ez dagozkiela ez gramatika-kategoriei ez eta gramatika-funtzioei ere. Dena den subjektuaren funtzioa betetzen duen sintagma, espezifikatzailea bete ohi du eta osagarri zuzen delako izenaz ezagun den funtzioa betetzen duen sintagma, aditzaren osagarri modura sortzen da beti. Osagarriak eta espezifikatzaileak beti izaten dira islapen nagusiak X'-Teoriaren arabera.



rela<sup>5</sup> eta ezinbestekoak diren argumentuak osagarriak direla esaten da. Predikatu baten argumentuen artean, argumentu-egituratik ere ezin desager daitezkeen elementuak dira hain zuzen osagarriak. Adibide bat ematearren, ikusi euskaraz oso ugaria den aditz-txandakaketa bat: badaude iragankor zein iragangaitz modura gauza daitezkeen aditz ugari (1) eta aldaera iragangaitzean, adiera iragankorrean osagarri zuzenaren funtzioa betetzen duen argumentua da beti irauten duena. Hortaz, adiera iragangaitzean subjektuaren funtzioa betetzen duena aditzaren osagarri modura sorturiko argumentua da.

- (1) a. Maisuak haurrak ikasgelara sartu ditu  
b. Haurrak ikasgelara sartu dira

Sintagma batean osagarri bakarria eta espezifikatzaile bakarria behar da, baina modifikatzaileak (hau da adjuntuak) bat baino gehiago izan daitezke.

Laburbilduz, izen, aditz, posposizio, izenondo, aditzondo, kuantifikatzaile, determinatzaile edo juntagailuez mintzatzen garenean gramatika-kategoriez ari garen bitartean, predikatu, modifikatzaile, osagarri zuzen, zeharkako osagarri edo subjektuak aipatzen ditugunean, sintaxi-funtzioez ari gara eta egile, jasale edo esperimintatzaileez hitz egiten dugunean berriz, argumentuen semantika-funtzioez. Osagarri, adjuntu edo espezifikatzaileak, azkenik, egiturazko harremani dagozkien berbak dira.

## 2. Euskal adjektiboak

*EGLU-I* (1985) gramatikaren arabera, euskaraz badira nolakotasuna adierazten duten eta izena laguntzen duten bi hitz-klase, izenondoak eta izenlagunak alegia, bi hitz-klase horiek biltzen dituen eta 'adjektibo' izenaz bataiatu duten suprakategoria bat ere proposatu dutelarik. Izenlagunak eta izenondoak bereizteko *EGLU-I* gramatikaren egileek aintzat hartu duten ezaugarria sintaxi-banaketarena izan da: izenlagunak izenaren ezker aldean azaltzen dira oro har eta izenondoak berriz, izenaren eskuinaldean joan ohi dira. Hona hemen gramatika horretatik harturiko bi adibide:

- (2) a. Liburu *handi* bat erosi nuen  
b. *Lurrezko* ontzi batean gorde zuen dirua

*EGLU-I* gramatikaren egileek, izenlagunek *-en* edo *-ko* deklinabide-markak dararatzatela azpimarratu dute. Gainera, izenaren eskuinaldean zein ezker aldean joan

(5) Adjuntuak, itsasten direneko adabegiaren maila aldatu gabe txertatzen dira sintaxian. Beheko eske-man, adibidez, ZS eta Z sintagmak adjuntuak dira eta ahizpa modura duten adabegia eta zuzenean menperatzen dituen adabegia maila berekoak dira: lehenengo kasuan sintagma-mailakoak dira biak eta bigarren kasuan, biak sintagma-guneak direla esan daiteke.







an daitezke, kokagunearen arrazoia seguruenez beren jatorrian dagoelarik: *jatorrizko, bidezko, oinarrizko, antzeko, zorioneko, benetako,...*

Bukatzeko, badugu izenondo-izaerari egotzi ohi zaion beste ezaugarri bat, graduatzaileak hartzeko ahalmena alegia<sup>8</sup>. Izenondo arruntek graduatzaileak har ditza-kete (10a, b). Izenaren modifikatzaile modura jokatzeko duten posposizio-sintagmek berriz, ez dute graduatzailearik onartzen (10c, d).

- (10) a. Liburu hori *zeharo interesgarria* da      d. \*Liburua *oso Mirenena* da  
 b. Hitzaldia *oso emankorra* izan da      e. \*Haur hori *oso begi urdinduna* da  
 c. \*Ontzia *oso lurrezkoa* zen

Bukatzeko, *bilbotar, darwiniar* edo *benetako* bezalako izenondoek, nekez onartzen dituzte graduatzaileak. Hau ez da harrigarria; izan ere, frantsesa eta gaztelania beza-lako hizkuntzetan badira graduatzaileak onartzen ez dituzten izenondo batzuk, erre-ferentziazko izenondoak alegia.

- (11) a. \*Logaritmo hau *oso nepertarra* da  
 b. ?Zu ni baino *bilbotarra* zara  
 c. ? Esan dizudana *guztiz oinarrizkoa* da

Laburbilduz, izenaren modifikatzailearen funtzioa bete dezaketen euskal katego-riak bi dira: a) izenondo-sintagmak eta b) buru modura *-ko, -en* eta *-dun* posposizioak dituzten posposizio-sintagmak. Bi kategoria horiek predikatu-funtzioa ere bete deza-kete. Izenondoaren ezaugarri bereizgarria graduatzaileak hartzeko aukerarena da. Hala ere, badira graduatzailea nekez har dezaketen zenbait izenondo, erreferentziazko ize-nondoak alegia.

Sail hau bukatu aurretik, 'adjektiboan' kategorian sartu ohi den<sup>9</sup> partizipioaren kasua aztertu nahi dugu. Partizipioa, mugatzailea hartzen duenean, adjektibotzat hartu ohi da. Zehazkiago, honelako partizipioak aditz adjektiboak direla esaten dute *EGLU-I* gramatikaren egileek, izenaren modifikatzaile modura (12) zein predikatu modura (13) azaltzeko aukera aintzat hartuz.

- (12) a. Haur *ongi ikasiek* ez dute horrelakorik esaten  
 b. *Ongi ikasi* haur batzuk      c. *Ongi ikasitako* haur batzuk

- (13) Gauza hori *mila bider esana* da

Ezaguna da, partizipioek aditzaren eta izenondoaren ezaugarriak nahasirik azal-tzen dituztela: kanpo-banaketari dagokionez, izenondoek bezala jokatzeko dute, baina eratzen dituzten sintagmei begiratzen badiegu, aditz-sintagmak datozkigu burura, moduzko aditzondoak, aditzlagunak eta ergatibo, absolutibo zein datibo markadun osagaiekin azal baitaiteke (14).

(8) Saltarelli-k (1988) honelaxe definitzen du euskal izenondoa: izenaren eskuinean kokaturik dagoen eta determinatzaile bat eta kasu-marka bat daraman edozein elementu. *Oso* edo *hain* bezalako graduatzaile batekin azal daitezke izenondoak. Aditzondoek bezala, konparaketazko eraikuntzetan parametro modura joka dezake-te, *-ago, -en* edo *-egi* atzizkietariko bati loturik daudenean.

(9) Ikusi Rebuschi (1982) eta *EGLU-I* (1995) adibidez.





Bestetik, ‘aditzondoan’ artean ere, benetan gramatika-kategoria baten adierazleak izan daitezkeen hitz soilez gain (*bihar*), erlazio-hizkiak daramatzatenak ere badaude (*bihartik*). Honelakoetan, aditzlagunen aurrean edo hobe esan posposizio-sintagmen aurrean gaudela esan behar genuke<sup>11</sup>. Edozein modutan, ‘adberbioen’ (aditzlagun eta aditzondoan) berezko zeregina aditza laguntzearena liteke. Bukatzeko, adberbioak nahitaezkoak ez izatea da *EGLU-I*-en egileek azpimarratu duten beste ezaugarri bat. Hala ere, batzuetan, aditzak aditzondo edo aditzlagun hori ezinbestean eskatzen due-la dirudiela azpimarratu dute.

- (16) a. Mikel *ongi* dago / \*Mikel dago      b. Mikel *etxean* dago / \*Mikel dago<sup>12</sup>

Bukatzeko, aditzondoak (posposizioak, juntagailuak eta interjekzioak bezala) aldagaitzak direla azpimarratu dute aipaturiko egileek. Dena den, aditzondoan aldaezintasuna ez da beste kategoriaren bezain estua, zeren batzuek atzizkiren bat har baititezakete. Adberbioen aldaezintasuna batez ere mugatzailea, komunztadura-markak eta aditzarekiko komunztadura duten argumentuek hartzen dituzten ergatibo, absolutibo eta datibo marka hartzeko ezintasunari dagokio.

Horrenbestez, nolabaiteko erlazio-hizkia daramaten ‘adberbioak’ posposizio-sintagmak direla esan behar dugu gramatika-kategoriaren ari bagara eta erlazio-hizkirik ez daramatenek ‘aditzondoan’ gramatika-kategoria osotzen dutela esan genezake.

Adberbioen sailari egotzi ohi zaizkion bi ezaugarri nagusiek, aukerakoak izatearena eta mugatzaileak ez izatearena, ez dirudite beren kategorian erabakitzearen bezain bestekoak. Hasteko predikazio-testuinguru askotan, mugatzailea ez da beharrezkoa, eta zenbait hizkeratan ezinezkoa gertatzen da (17).

- (17) a. Dendaria *gazte* dago oraindik      c. Dendariak *gazte* dirudi  
b. Dendaria *gazte* hil zen

Bestetik, predikatu-osagarriez gain badira adjuntutzat hartu ohi diren bigarren mailako predikatuak<sup>13</sup> ere, aditzaren modifikatzaileak bezala aukerakoak direnak. (18) adibideetan, esate baterako, *merke* eta *artzain* aukerakoak dira eta hala ere, hurrenez hurren izenen eta izenondoan kategoriako predikatuak (adjuntzuak) direla esango genuke, *sagar merkeak* eta *artzain gaztea* moduko izen-sintagmen modifikatzaile eta buru modura joka dezaketelako gertaeran oinarrituta.

- (18) a. Sagarrak (*merke*) erosi genituen Gernikako azokan  
b. Jon Ameriketara (*artzain*) joan da

(11) Hona hemen Saltarelli-k (1988) euskal aditzondoetarako eman duen definizioa:

**Aditzondoa:** Inolako erlazio-atzizkirik onartzen ez duen eta aditzaren morfologia kontrolatzen ez duen aditzaren edozein modifikatzaile. Izendoei bezala, zenbait aditzondok (denborazko eta moduzko aditzondoei) graduatzaile bat eraman dezakete ezkerrean. Gainera, *-ago*, *-en* edo *-egi* atzizkietariko bat hartuz, konparaziozko eraikuntzetan azal daitezke parametro gisa.

(12) *Mikel dago* edo agian hobe *Badago Mikel* onargarria izan liteke esangura existentzialaz, baina ez (16) esaldietan duten kokapenezko eta atribuziozko adieretan. Adberbioa beraz, ezinbestekoa da aipaturiko bi adiera horietan.

(13) Euskaraz bigarren mailako predikazioak dituen ezaugarri zehatzei buruz datu gehiago nahi izatekotan, ikusi Zabala (1993).



Elatiboa edo adlatiboa daramaten posposizio-sintagmek aditzaren modifikatzaile modura jokatu ohi dute, tokia (26a) edo denbora (27b) adieraziz; inesiboko posposizio-sintagmak ere, aditzaren modifikatzaileak dira denbora adierazten dutenean (27).

(26) a. Tren hori *Bilbotik Donostiara* doa    b. *Astelehenetik* ez naiz kalera irten

(27) *Ostiralean* jai bat ospatuko dugu

Bukatzeko, instrumentala daramaten posposizio-sintagmek aditzaren modifikatzaileak izan ohi dira modua edo denbora adieraz dezaketelarik.

(28) a. Gutuna *eskuz* idatzi genuen                    b. Hitzaldia *lau orduz* luzatu zen

Laburbilduz, aditzlagunak, posposizio-sintagmak dira gramatika-kategoriari dagokionez eta haien artean, predikatuak eta modifikatzaileak bereiz daitezke sintaxifuntzioari begira. Horrela, 'aditzlagun' berba ez da baliogarria ez gramatika-kategoria modura ez eta sintaxi-jokaera bakarra adierazteko ere: aditzarekiko komunztaduran parte hartzen duten absolutibo, ergatibo eta datiboa eta mugagabea baino ez duten partitibo eta prolatiboa alde batera utzirik geratzen diren deklinabide-markak erabiliz eratzen diren osagaien erreferentzia egiteko balio du besterik gabe.

Aditzondoei dagokionez, *EGLU-I* (1985) gramatikan hainbat motarako sailkapenak ageri dira. Sailkapen horietariko bat semantikaren ikuspegitik egindakoa da: denborazkoak, lekuzkoak, moduzkoak, mailakoak eta iritzikoak. Badirudi, aditzondoen artean sintaxi-jokaeraren aldetik ezberdin samarrak diren hitzak sartzen ditugula. Dena den, hori bestelako hizkuntzen gramatika deskribatzean ere azaltzen den arazoa da<sup>15</sup>. Edonola, aditzondoen sailean sartu ohi diren hitzen sintaxi-jokaeran apur batez sakontzea interesgarria izan daitekeela dirudi.

Funtzioari dagokionez, maila-aditzondoek (*oso, guztiz, txit, arras,...*), aditza, izenondoa edo beste aditzondo bat modifikatzen dute eta iritzikoek (*nonbait, agian, antza,...*) perpaus osoaren baieztapenari dagozkiola esan liteke; edonola, lan honetan ez ditugu sakontasunez aztertuko. Hona hemen *EGLU-I*-etik ateratako zenbait adibide:

(29) a. *Oso* berria ere ez zen

b. *Oso* haserretu zen

c. *Aski* berandu gabiltza

(30) a. *Agian* joango gara

b. Gaur etorri da, *antza*

Denborazko aditzondoek (*bihar, behin, atzo,...*) beti eskaintzen dituzte gertaera edo egoerei buruzko zehaztasunak eta beraz, aditzaren modifikatzaile gisa jokatzeko dutela esan daiteke.

(31) a. *Bihar* egingo dugu

b. *Behin* horrelako istripu bat ikusi nuen

(15) Ikusi Bosque-ren (1989) aipamen hau: 'Consideremos esta secuencia, que cualquiera podría haber emitido porque no tiene nada de extraña: *También ayer caminaba muy lentamente, incluso mucho más despacio*. De acuerdo con los criterios tradicionales, la única palabra que no es adverbio en esta secuencia es *caminaba*. Todas las demás pertenecen a la clase de los adverbios. Ahora bien, ¿Qué ganamos al decir que todas las palabras de esa oración menos una son adverbios? La gramática de *incluso*, la de *lentamente* y la de *ayer* tienen verdaderamente muy poco en común. Si conseguimos describir detalladamente sus diferencias y logramos remitir esos comportamientos a categorías distintas, importa poco que decidamos o no al final postular una hipercategoría que las recubra a la que llamemos "adverbio"...' (25. or.)

Aditza modifikatzen duten denbora-aditzondoek posposizioak eramanen dituzte sarritan, eta beraz, posposizio-sintagmatzat har ditzakegu. Beraz, posposizioek behinik behin ISak (*etxean*), beste PSak (*Bilborako*) edo aditzondoak (*bihartik*) eraman ditzakete osagarri modura.

- (32) a. *Atzotik* ez dut Miren ikusi                      b. *Bihar arte* ez dugu lana bukatuko

Bukatzeke leku eta moduzko aditzondoek gehienetan gertaera edo egoerei buruzko zehaztasunak ematen badituzte ere (33a), batzuetan, argumentu baten semantika murriztu eta beraz predikatuak eratzen dituztela dirudi (33b, 33c, 33d).

- (33) a. *Hemen* indabak *ongi* prestatzen dituzte                      c. Nire laguna *bala* da  
b. Taberna *hemen* dago    d. Lagunak *ongi* daude

Honelako kasuetan, bi irtenbide dugu: alde batetik, forma-irizpideei balio handiagoa esleituz, horrelako hitzak aditzondoak direla proposa dezakegu, aditzondoek aditzaren modifikatzaileak ezezik izenki-predikatuak ere eman ditzaketela onartu beharko dugularik. Beste muturrean, izenki-predikatuak era ditzaketen hitz horiek aditzondoan sailetik atera ditzakegu<sup>16</sup>. Geure iritziz, ez dauka zentzu handirik predikazio-funtzioari modifikatzaileen funtzioari baino balio handiagoa emateak. Hortaz, aditzondoan kategoriako zenbait hitzek aditzaren gertaeraren modifikatzaile modura jokatzeko gaitasunaz gain izenki-predikatuak eratzeko ahalmena dutela onartu behar dugu.

Laburbilduz, aditzaren modifikatzaile modura joka dezaketen osagaien artean, posposizio-sintagmak eta aditzondoak ditugu. Dena den, zenbait posposizio-sintagmak eta lekuzko zein moduzko aditzondo batzuek predikatuak ere eratzen dituzte. Bukatzeko, zenbait aditzondok, aditza ezezik, izenondoak, beste aditzondo batzuk edo perpaus osoak modifika ditzakete.

#### 4. Modu-aditzondoak

Modu-aditzondoan esparruan sailkatu ohi direnen kasuistika korapilatsu samarra da eta sail oso bat merezi dutela uste dugu, multzo horretan itxuraz oso ezberdinak diren hitzak sartzen baitira eta zenbait testuingurutan zalantzak izan baititzakegu osagai batzuek izenondoan edo aditzondoan sailean sartzeko. Modu-aditzondoan kasuak era tajutuagoan aztertzeke, begira diezaiegun *EGLU-I* (1985) gramatikan erabili diren forma-irizpideei: aditzondo bakunak, eratorriak, elkartuak, aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak eta esaera adberbialak.

Gramatika-kategorien finkapenaren ikuspegitik, aditzondo eratorriak eta aditzondo gisa erabilitako bestelako hitzak dira interesgarrienak. Hasteko, aditzondoak eman ditzaketen atzizkiak, *-ki*, *-ka*, *-ro*, *-to*, *-ik*, *-kari* eta *-la* direla eman dute aditzera *EGLU-I* gramatikaren egileek. Bestetik, partizipioek perpaus adberbialak emateko *-ta* eta *-(r)ik* atzizkiak har ditzaketela gaineratu dute. Hortaz, (34) multzoko adibideak eskaini dituzte:

(16) Antzeko gogoeta egin du Bosque-k (1989) gaztelaniaren (i) eta (ii) adibideen aurrean.

(i) Juan está estupendamente                      (ii) \*Juan está lentamente

Bosque-ren iritziz, egokiena aditzondoak ere izakiez predika daitezkeela onartzea da.

- (34) a. Gizonki, ohorezki, ederki, ibilki  
 b. Harrika, aldizka, gordeka, haraka  
 c. Astiro, berriro, betiro  
 d. Ederto, txarto  
 e. Ixilik, onik, bakarrik, zutik, pozik, biluzik, alferrik, hutsik  
 f. Igandekari  
 g. Horrela, bestela  
 h. Apurtuta, eginik

Adibide horietako atzizki gehienak (*-ki*, *-ro*, *-to*, *-la*) honelako hiztegi-sarreretan baino ez dira azaltzen. Gainera, atzizki horiek daramatzaten hitzek aditzaren gertaera modifikatu ohi dute, gertaera horren modua zehatzuz (35). Beraz, aditzondoak eratzeko atzizki eratorletzat hartu behar dira zalantzarik gabe.

- (35) a. Lan hori *astiro* egin behar da  
 b. *Horrela* lortu duzu daukazun ospea  
 c. *Ederki* idatzi duzu azaldu dizugun ideia

Esan dugunez, aditzondotzat hartu ditugun horien artean, batzuek izenki-predikatua modura joka dezakete (36a, b), izenondoek bezala, eta beste batzuek ez dute horrelako aukerarik (36c). Dena den, morfologia zeharo garbia denez eta hitz hauek gehienetan aditzaren modifikatzaileak direnez, ez dirudi aditzondoaren sailetik atera behar lirakeenik —gogoratu aurreko sailean (33) adibideei buruz egin dugun gogoeta—.

- (36) a. Miren *zintzoa* zela esan nizun eta *bala* da  
 b. Ander *gaixorik* zegoen baina dagoeneko *ongi* dago  
 c. \* Bazkaria *astiro* {da/dago}

Era berean, *-ka* atzizkia daramaten hitzak, (34b) multzokoak alegia, aditzondotzat har daitezkeela esan dezakegu, beti erabiltzen baitira aditzaren gertaera modifikatzeko (37).

- (37) a. Haur horiek *harrika* agurtu gaituzte  
 b. *Aldizka* joaten gara Anderren etxera

Hala ere, badaude *-ka* atzizkia daramaten eta gertaerarik modifikatzen ez duten *keinuka* bezalako zenbait hitz: iharduerak adierazten dituzten predikatuak eratzen dituzte, lehenengo (38a, b) edo bigarren mailako predikatu modura jokatzeko dutelarik (38c).

- (38) a. Jon *keinuka* dago  
 b. Jon *keinuka* ari da  
 c. Jon *keinuka* ikusi dugu

*-ka* hizkiaren izaera ez dago oso garbi, baina atzizki eratorle baten itxura baino areago posposizio baten itxura duela esango genuke. Honelakoak beraz, posposizio-sintagmatzat hartuko ditugu eta testuinguru bakoitzean, predikatuak edo modifikatzaileak eratzen ote dituzten ikusi beharko dugu.



tzen dutenean (41). Ez dirudi beraz, aditzondotzat hartzeko inolako arrazoirik egon daitekeenik.

- (40) a. Ura *hotz* edan dugu  
 (i) Ura edan dugu (ii) Ura *hotz* zegoen<sup>18</sup>  
 b. Liburu hauek *oso merke* erosi ditugu  
 (i) Liburu hauek erosi ditugu (ii) Liburuak *oso merke* zeuden
- (41) a. Liburu hauek *oso merkeak* dira c. Liburu *merkeak* erosi dizkizut  
 b. Hemengo ura *oso hotza* da d. Ez duzu ur *hotza* edan behar

*Azkar* eta *garbi* hitzen funtzioa, ordea, zalantzarriagoa da: (42) adibideetan predikazioen zatiketa egitean, esangura aldatzen dela edo ondorio txarrak ematen dituztela dirudi.

- (42) a. Irakasleak *garbi* hitz egin du  
 ≠ (i) Irakasleak hitz egin du (ii) Irakaslea *garbi* zegoen
- b. Mikelek *azkar* margotu du etxea  
 ≠ (i) Mikelek etxea margotu du  
 (ii) \*Mikel *azkar* zegoen/Mikel *azkarra* zen

Dena den osagai horiek *egon* aditza onartzen ez badute ere, *izan* aditzaren adizki perfektiboak edo *ibili* aditza onartzen dute (26). Horrenbestez, izenondotzat har litezke hauek ere.

- (43) a. Irakasleak *garbi* hitz egin du  
 (i) Irakasleak hitz egin du  
 (ii) Irakaslea {*garbia izan da* /*garbi ibili da*}
- b. Mikelek *azkar* margotu du etxea  
 (i) Mikelek etxea margotu du  
 (ii) Mikel {*azkarra izan da* /*azkar ibili da*}

Bestetik, aurreko kasuan bezala, *garbi* eta *azkar* hitzak *-a(k)* morfemarekin batera aurki ditzakegu izenaren modifikatzaile modura eta predikatu-osagarri modura (44).

- (44) a. Haur hau *oso garbia* da c. Aulki *garbia* nahi dugu eta ez *zikina*  
 b. Haur hori *oso azkarra* da d. Haurrik *azkarrenari* sari bat emango diogu

Hitz hauen kasuan ere, izenondoen aurrean gaudela dirudi, mugatzailerik gabeko erabilera sintaxiaren testuinguruak eragiten duelarik.

Bukatzeko, izenondoen sailean gertatu zaigun bezala, partizipioez ere, *-ta* edo *-(r)ik* bukaera duten partizipioez zehazkiago, mintzatu behar dugu sail honetan. Honelako partizipioak adberbioak direla irakur daiteke hainbat gramatikalariren lanean (Goenaga 1982; Rebuschi 1982; EGLU-I 1985, besteak beste). *-Ta* edo *-(r)ik* bukaerak, izenondoen sailean aipatu dugun *-a(k)* morfema bezala, aditzari sintaxian gaineratzen zaizkiola pentsa dezakegu. Izan ere, partizipio horiek aditz jokatuakin azaldu ohi diren osagai batzuk azaltzen dituzte, hala nola leku eta moduzko modifikatzaileak.

(18) Perpausen zatiketa, honelako perpausetan dauden bi predikazioak agerian uzteko erabili ohi den sintaxi-froga da.

- (45) a. Bazkari hau *maitasun handiaz prestaturik* dago  
 b. *Ibai bonetan igeri eginda* nago

Ondorioz, partizipio hauek gramatika-kategoriaz posposizio-sintagmak dira: posposizio-sintagma horiek aditz-sintagma dute barruan. Areago, partizipio horiek perpaus absolutuak eratzen dituzte (46), perpaus horien funtzioari dagokionez aditz nagusiaren modifikatzaileak direla esan daitekeelarik<sup>19</sup>.

- (46) *Mikeli behar dituen azalpen guztiak emanik*, berak egingo du lana

Bistan da ezin esan dezakegula eraikuntza hauetan *-rik* edo *-ta* morfema daraman partizipioa aditzondoa denik. Hasteko, aditz nagusia modifikatzen duena perpaus osoa da eta ez partizipio hutsa. Bigarrenik, erlatiboazko perpausak izenlagunek bezala izenak modifikatzen badituzte ere, ez dugu esaten *-(e)n* menderagailua edo menderagailu hori daraman aditza 'adjektiboen' kategoriakoa denik; halaber, aditz-izenaz eratutako perpausak, izen-sintagmek bezala, zenbait predikaturen subjektu edo osagarri modura azal daitezke, baina beraien kategoriaz aritzen garenean, perpaustzat hartzen ditugu eta ez izentzat. Modu berean, (46) bezalako perpausen funtzioa aditz nagusiaren gertaera modifikatzearena izan arren, ez da zehatza *-(r)ik* atzizkia edo atzizki hori daraman partizipioa kategoriaz adberbioa dela esatea. (46) bezalakoak perpausak direnez, zuhurrago dirudi *-rik* edo *-ta* morfemak menderagailu edo posposizioen sailean sartzea.

Laburbilduz, modu-aditzondoen artean sailkatu ohi diren zenbait hitzen kategoria zalantzatan jarri dugu. Hasteko, *gaizki*, *ederto*, *astiro* eta *horrela* bezalako hitzek gehienetan aditzaren modifikatzaile modura jokatzeko badute ere, batzuetan izenki-predikatuak eratzen dituztela agerian jarri dugu, sintaxi-jokaera hori aditzondoen kategoriatik ateratzeko bezain bestekoa ez dela onartu badugu ere.

Bigarrenik, *-ka* bukaera daramaten hitzen artean, bi jokaera bereizi ditugu, *harrrika* eta *aldizka* bezalakoek beti izaten baitira aditzaren ekintzaren modifikatzaileak baina *saltoka* edo *oibuka* bezalakoek beti jokatzeko baitute predikatu modura. Ondorioz, egokiena *-ka* hizkia posposiziotzat hartzea dela defendatu dugu, eratzen dituen posposizio-sintagma batzuek modifikatzaile modura eta beste batzuek predikatu modura jokatzeko dutelarik. Hori ez da harrigarria inesibo posposizioaren kasuan antzeko jokaera bikoitza agerian jarri dugula kontutan hartuta.

Hirugarrenik, *ixilik*, *bakarrik*, *zutik* eta *pozik* bezalakoek begiratu diegu, beti (lehen mailako edo bigarren mailako) predikatu modura jokatzeko dutela ikusi dugularik. Funtzioaren ikuspegitik, beraz, ez dirudi aditzondotzat hartzeko inolako arrazoirik dagoenik. Gainera, morfologiari begiratuta, *-ik* bukaerak izen-sintagmetako partitiboa gogorarazten digula azpimarratu dugu. Morfologiazko antzekotasun horri

(19) Lafitte-k (1944) ere, partizipio hauek eratzen dituztenei '*proposition participials*' deritze, beren semantika dagokionez, hiru esangura izan dezaketela gaineratu duelarik: *l'antériorité*, *le moyen*, *la condition* et *la cause*.

Gainera, egile horrek *adverbe-participles* izeneko sail bat dauka bere gramatikan, haien artean hauek aipatu dituelarik: *-ka* bukaera daramaten *itzulika*, *atchemanka* eta *joan-jin-ka* eta *-ki* bukaera daramaten *izanki*, *eremanki*, *jakinki*, *joanki* eta *iraganki* (ekintza bere garapenean adierazten dutenak), eta *itsuki*, *segituki*, *deliberatuki*, *obartuki*, *atsulutuki* eta *agertuki* (modu-adberbioak).



*ixilik* eta *bakarrik* bezalakoek *ixila* eta *bakarra* bezalakoekin konparatuz banaketa osagarria dutela gaineratu behar zaio. Hortaz, sail honetako hitzak izenondoen kategorian sartzeari zuhurrago iritzi diogu.

Laugarrenik, komunztadurarik gabe azaldu ohi diren *botz edan*, *merke erosi*, *garbi hitz egin* eta *azkar margotu* segidetako lehen hitzaren kategoriari dagokionez, (bigarren mailako) predikatuaren funtzioa betetzen dutela jarri dugu agerian. Bestetik, izenaren modifikatzaile modura edo lehen mailako predikatu modura jokatzen dutenean mugatzailea hartzen dutela azpimarratu dugu. Horrenbestez, aditzondoen kategorian sartu beharrean izenondoen kategorian sartzea egokiagoa izan litekeela defendatu dugu.

Bukatzeko, *-ta* edo *-rik* hizkia daramaten partizipioek predikatuak edo perpaus menperatuak eratzen dituztela ikusi dugu. Hortaz, *-ta* edo *-rik* horiek posposizio kategoriakoak direla defendatu dugu, perpausaren modifikatzaile-jokaeran oinarrituz partizipioari aditzondo kategoria egozteak zentzurik ez duela azpimarratu dugularik.

### Ondorioak

EGLU-I (1985) gramatikan proposatu diren 'adjektibo' eta 'adberbioen' sailak homogeneousak ez direla jarri dugu agerian. Izan ere, adjektiboen sailaren kasuan, sintaxi-funtzio bakarra, hots, izena modifikatzearen funtzioa, duten hitzak sartu dira, baina haien artean, posposizio-sintagmen kategoriako (*lurrezko*) eta izenondoen kategoriako (*interesgarri*) hitzak sartu dira.

Adberbioen kasuan ere, posposizio-sintagmen kategoriako (*etxean*), aditzondoen kategoriako (*ongi*) eta, geure iritiz izenondoen kategorian egon behar luketen hitzak (*zintzo*, *ixilik*) sartu dira. Funtzioari dagokionez ere, aditzaren, izenondoen edo aditzondoen modifikatzaile izan daitezkeenez gain (*bihar*, *oso*, *biziki*), izenki-predikatu modura jokatzen dutenak (*etxean*, *apurtuta*, *zutik*, *saltoka*) ere badaude.

Partizipioei dagokienez, aintzat hartu dugu jokaera bikoitza duten kategoriak direlako ideia: eratzen dituzten sintagmen izaerari dagokionez, aditz-sintagmen antzera osoturik daude, baina kanpo-banaketari dagokionez, izenondoen edo aditzondoen antzera jokatzen dute. Kategoría erabakitzeko, ordea, ezin begira dakiokete funtzio soilari; hortaz, *-a(k)* bukaera duten partizipioak dituzten eraikuntzak osagarri modura aditz-sintagmak dituzten komunztadura-sintagmak direla defendatu dugu. *-Ta* edo *-rik* hizkia daramaten partizipioak berriz, osagarri modura aditz-sintagmak dituzten posposizio-sintagmak dira geure iritiz.

### Bibliografia

- Bosque, I., 1989, *Las categorías gramaticales*. Ed. Síntesis. Madrid.  
 Euskaltzaindia 1985, *Euskal gramatika lehen urratsak-I* (= EGLU-I). Iruñea.  
 Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*. Ed. Erein. Donostia.  
 Lafitte, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Elkar. Donostia. 1979.  
 Odriozola, J. C. & Cantero, A., 1993, 'Euskal izenondoen kokapenari buruzko zenbait ohar' *Euskera*. 37 (2): 1035-1049.  
 Rebuschi, G., 1982, *Structure de l'énoncé en basque*. Doktoretza-tesia Université de Paris VII.  
 Saltarelli, M., 1988, *Basque*. Coom Helm Descriptive Grammar series.  
 Zabala, I., 1993, *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean: Euskararen kasua*. Doktoretza-tesia. UPV-EHU.